

zakilixut

© Olariagak



Irene Arrizurieta | IRUÑEA

ATZEKOZ AURRERA

Sorginen gau-bilera 17:00etan zen haste-koa Merinaldeen Plazan. Baina han Espainiako polizia ugari, eta sorgin eta aker gutxi ageri zen. Poliziak hartua zuen Karlos III.a etorbide osoa, alde bietan furgonetak eta kale bazter guztietan uniformedunak. Kazetariak identifikatu zituzten eta inguruko espaloietan gelditzen zen edozein gazte «susmagarri» ere bai.

Plazan ezin eta pareko Amaia kalean hasi zen akelarre ibiltaria. Sorginak azaldu ziren eta hiruzpalau aker, atzetik protestara hurbildutako herritarrek. Horpoz horpo Polizia. Nafarroa Behereko etorbideetik Iruñeko Autobus geltokirako bidea hartu zuen protestak. Tentsioa nabaria zen. Manifestariak espaloira igo eta abiatu ziren, gurea da kalea eta adierazpen askatasuna oihukatzen zuten bitartean.

Vianako Printzea plazan dagoen UPNren egoitzara iritsi aurretik poliziak gelditzeko eta sakabanatzeko agindu zien. Manifestazio eskaerarik egin ez zuten, ez zegoela baimenduta eta alde egiteko agindu zien polizia buruak. Manifestariak espaloian eseri ziren, eta kantari hasi ziren. Bat-batean jendea altxatu eta alde egiten hasi zen. Baina, hara non plazaren bestaldetik sorgin gehiago azaldu ziren.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Espainiako Poliziak sakabanatu egin zituen Akelarrean parte hartu zutenak.

Hauek zaratatsuagoak ziren. Zintzarrien eta danborren soina lagun zutela, eta belar gurdi eta guzti etorri ziren. Poliziaren aginduz sakabanatutako manifestazioa berriro Autobus Geltokiko espaloian bildu zen. Akelarrean 500 lagun inguru bildu zen orduan, zaratatsu, txaloka eta kantari. *Pauso bat bera ere ez atzera Europako kapitalaren aurka borrokan oihukatu zuten berriro.* Tentsioa areagotu egin zen poliziak manifestarien gurdia errepidetik atera zuenean. Polizia manifestariei oldartu zitzairen. Medikuz atsoaguretuta zegoen gazte bat hartu, eta manifestaziotik atera zuen. Furgoneta ondora eraman zuten identifikatzeko. Datuak hartu zizkioten, eta manifestazioraitzuli zen gaztea. Ondoren, berriro ere, polizia buruak manifestazioa baimenik ez zutela, eta sakabanatzeko agindu zien. Dantzan, kantuan eta txaloka zebilen jendea borra-kolpe hartu zuen Poliziak eta sakanabatu egin zuen.

Batzuk Alde Zaharrerantz bultzatu zituzten makilkadaka eta beste batzuk Gotorleku aldera. Behin manifestazioa sakabanatuta, Alde Zaharreko sarre-ak hartu zituen Poliziak eta Nafarroako Jauregiaren ingurua ere. Anker dantza asko, eta sorgin-dantza gutxi Iruñeko protestan.

Borra-kolpeek amaitutako akelarrea

EBko ministroen Energia Mintegiko «energia txarrak» uxatzeko akelarre ibiltaria antolatu zen atzo Iruñean



Megadenda, zure aukera musika eta liburutan

arriaga

Gasteiz

bertso-hop

Irun

bilintx

Donostia
Tolosa
Bergara

herriak

Bilbo

mattin

Baiona

ramos

Donostia

urretindorra

Bilbo

xalbador

Iruña

xalem

Iruña